Expediente: 2021.49

Nota: Modificación especificación requisito técnico relativo al consultor senior

En Bilbao a 2 de julio de 2021

Estimado licitador:

En relación con la licitación del Exp. 2021.49 correspondiente a la "***CONTRATACIÓN DE UN SERVICIO DE SECRETARÍA TÉCNICA PARA LA ASISTENCIA EN EL PROCESO DE CERTIFICACIÓN BIKAIN DURANTE EL PERIODO 2021-2022 PARA EL GRUPO EITB***" cuyo anuncio y Pliegos fueron publicados en el perfil de contratante con fecha 16 de junio de 2021, se **INFORMA:**

PRIMERO- Que se ha modificado un requerimiento relativo al consultor senior, especificándose que únicamente será necesario contar con una evaluación BIKAIN en los últimos tres (3) años.

SEGUNDO- Que, debido a ello se ha actualizado el **ANEXO II.2** del PCAP:

Por todo ello, donde **ANTES** indicaba:

Perfil profesional (1) Consultor/a Senior		
Titulación	Experiencia	Dedicación
Evaluador BIKAIN	- Haber evaluado, al menos, UNA entidad en los últimos TRES años. - Experiencia de más de TRES años implantando sistemas BIKAIN	En función de las necesidades

Pasa **AHORA** a indicar lo siguiente:

Perfil profesional (1) Consultor/a Senior		
Titulación	Experiencia	Dedicación
Evaluador BIKAIN	- Haber evaluado, al menos, UNA entidad en los últimos TRES años. - Experiencia de más de TRES años implantando sistemas BIKAIN	En función de las necesidades

TERCERO- Que, debido a ello se ha actualizado el apartado "***6.2 Baldintza partikularrak***" del PPTP:

Por todo ello, donde **ANTES** indicaba:

- *BIKAIN ziurtagirian espezializatutako aholkulari Senior BAT(1), ezaugarri hauek dituena:*

  - *BIKAIN ebaluatzailea*
  - *Azken HIRU (3) urteetan, gutxienez, bi entitate ebaluatu izana.*
  - *HIRU (3) urtetik gorako esperientzia BIKAIN sistemak ezartzen.*

Pasa **AHORA** a indicar lo siguiente:

- *BIKAIN ziurtagirian espezializatutako aholkulari Senior BAT(1), ezaugarri hauek dituena:*

  - *BIKAIN ebaluatzailea*
  - *Azken HIRU (3) urteetan, gutxienez, entitate bat ebaluatu izana.*
  - *HIRU (3) urtetik gorako esperientzia BIKAIN sistemak ezartzen.*

CUARTO- Que el plazo inicial de presentación de las ofertas, queda ampliado hasta el **21 de julio de 2021** a fin de que todas la entidades interesadas cuenten con el tiempo necesario para preparar sus propuestas, atendiendo a la complejidad del contrato, y respetando, en todo caso, los plazos mínimos fijados en esta Ley.

QUINTO - Que los pliegos modificados junto con la presente nota se encuentran disponibles en "*Perfil de Contratante*" de la página web del grupo EITB www.eitb.eus (https://www.eitb.eus/es/grupo-eitb/perfil-del-contratante/).

Sin otro particular, reciba un cordial saludo

Dpto. Compras

PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA, XEDEA IZANIK EITB TALDEARENTZAT 2021-2022 ALDIRAKO BIKAIN ZIURTAGIRIRAKO PROZESUAN LAGUN DEZAKEEN IDAZKARITZA TEKNIKO BATEN ZERBITZUA KONTRATATZEA

PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ

ESPEDIENTEA: 2021.49

2021/07/02 (1 Bertsioa)

AURKIBIDEA

1. XEDEA 2

2. AURREKARIAK 2

3. ZERBITZUAREN IRISMENA ETA DESKRIBAPENA 2

4. ENTREGATZEKOAK 3

5. ZERBITZUAREN EGUTEGIA ETA SEGIMENDUA 3

6. ZERBITZUA EMATEKO BEHARREZKO GIZA BALIABIDEAK 4

6.1 BALDINTZA OROKORRAK 4
6.2 BALDINTZA PARTIKULARRAK 5

7. PENALIZAZIOAK 6

8. ERAKUNDE LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA 7

8.1 C GUTUN-AZALA.- BALIO-JUDIZIO BIDEZ BALIOETSITAKO ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA 7
8.2 B GUTUN-AZALA.- DOKUMENTAZIOA, FORMULEN BIDEZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZARI BURUZKOA. 7

1. XEDEA

Plegu honen xedea da baldintza teknikoak finkatzea 2021-2022 aldirako Bikain ziurtagirirako prozesuan lagun dezakeen idazkaritza tekniko baten zerbitzua kontratatzeko EUSKAL IRRATI TELEBISTA – RADIO TELEVISION VASCA Erakunde Publikoarentzat (aurrerantzean, **Erakunde Kontratatzailea, EK** edota **EITB**).

Horretarako, plegu honetan ezartzen diren eskakizun eta baldintzen arabera eman beharko da zerbitzua, bai eta dagokion Klausula Administratibo Partikularren Pleguaren (KAPP) arabera ere, kontratazio honi dagozkionak, eta zeinetatik alderdi kontratugileen eskubide eta betebeharrak eratortzen diren.

2. AURREKARIAK

EITB taldeak euskara-plan bat du 2021-2022 aldirako. Plan horretan, EITBk euskaraz funtzionatu ahal izatea markatzen duen lehen ildo estrategikoaren barruan, ekintza bi zehaztu dira Bikain ziurtagiriari lotuta:

- Bikain ziurtagiria lortzeko lana egin
- Bikain prozesura aurkeztu eta ziurtagiria lortu

Bikain Hizkuntza Kudeaketaren kalitate-ziurtagiri ofiziala da, publikoa eta doakoa, euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa hiru mailaren bidez ebaluatzen duena: gorena (urrea), erdikoa (zilarra) eta oinarrizkoa (beltza).

EITBk 2019-2020ko epean prestaketa-lana egin zuen bere euskara-plan berria Bikainek markatutako kudeaketa-ereduarekin lerrokatuta egon zedin. Orain, bide horretan urrats bat gehiago eginez, Bikainen kudeaketa-eredua EITB Taldean abian jartzeko unea da.

3. ZERBITZUAREN IRISMENA ETA DESKRIBAPENA

Kontratazio honen xede den zerbitzu-emateak Bikain (gutxienez zilarrezkoa) ateratzeko beharrezkoak diren eginkizunak barne hartuko ditu, besteak beste:

a. BIKAIN ziurtagiriarekiko gaurko egoeraren hasierako analisia.
b. EITB Taldeari lagun egitea Bikaineko prozesua amaitu arteko bide osoan.
c. BIKAIN ziurtagiria lortzeko beharrezkoa den txostena egiteko laguntza teknikoa.

Halaber, zerbitzu horiei lotutako eginkizunetan, Erakunde Esleipendunak, EITB Taldeko Bikain Lantaldearekin koordinatuta lan egin beharko du.

Erakunde esleipendunak gutxienez alderdi hauek hartu beharko ditu kontuan:

1. Erreferentzia marko estandarreko (EMEko) eskakizunak.
2. Euskararen egoera EITB taldean eta barne-dokumentazioa.
2. EITBren 2021-2022 euskara plana.

Erakunde esleipendunak bere proposamenean adierazi beharko du kontraturako proposatzen duen idazkaritza teknikoaren zerbitzuaren ordu-bolumena, bai eta fase bakoitzerako kontratua gauzatzeko bideratuko diren giza baliabide zehatzak ere:

i. Idazkaritza teknikoaren ekintza plana diseinatzean
ii. Idazkaritza teknikoaren ekintza plana gauzatzean
iii. Idazkaritza teknikoaren ekintza planaren segimenduan
iv. Ekintza planaren urteko berrikuspena eta hura berriz definitzea

4. ENTREGATZEKOAK

Esleipendun erakundeak honako agiriak eman beharko dizkio EKri:

i. BIKAIN lortzeko ekintza plana. Planak, EITB Taldearen gaur egungo egoera identifikatu beharko du, BIKAIN ziurtagiriari dagokionez, eta ziurtagiria lortzeko beharrezkoak diren ekintzak proposatu, nabarmentzen

   a. Ekintza gauzatzeko beharrezko baliabideak EITB-ren partetik.
   b. Jarduera-egutegia.
   c. Segimendu-adierazleak.

ii. Planaren aurrerapenari buruzko hiruhileko txostena.

iii. Burututako bileren aktak.

iv. BIKAIN ziurtagiria lortzeko aurkeztu beharreko txostenaren zirriborroa.

v. Plana gauzatzearen segimenduari buruzko azken txostena; hor sartuko dira, urtero egingo den analisiaren emaitzetan oinarrituta, Ekintza plana berregokitzeko eta hobetzeko hartuko diren neurriak.

Edonola ere, kontratazio honen babesean egindako dokumentazioaren jabetza Erakunde Kontratatzaileari dagokio.

5. ZERBITZUAREN EGUTEGIA ETA SEGIMENDUA

Erakunde esleipendunak kontratazioaren xede diren zerbitzuak garatzeko egutegi hau errespetatuko du:

i. «2021-2022ko ekintza plana» dokumentua: hil bat kontratua hasten den hurrengo egunetik aurrera (epeari dagokienez, soilik kontuan hartuko dira abuztuko azken bi asteak)
ii. EITB Bikainera aurkeztu aurreko memoriaren lehen zirriborroa: 2022ko martxoaren 22a
iii. EITB Bikainera aurkeztu aurreko memoriaren azken zirriborroa: 2022ko abuztuaren 31a
iv. Plana gauzatzeari buruzko azken txostena: 2022ko abenduaren 16a

Esleipendun erakundeak aldizka jakinarazi beharko ditu kontratuaren garapenaren barruan egindako ekintzak. Horretarako, zerbitzuaren segimenduaren gaineko bilerak egingo dira hiruhileko bakoitzean.

Aurrez, gutxienez bi egun lehenago, entregatu beharko da «Planaren aurrerapenari buruzko hiruhileko txostena» edo bileretarako beharrezkoa izan daitekeen beste edozein agiri.

Egin beharreko bilerei dagokienez, erakunde esleipendunaren egitekoa da:

- Bilera egin baino lehen –gutxienez bi egun lehenago–, «Planaren aurrerapenari buruzko hiruhileko txostena» entregatzea.

  Horretarako esleipendun erakundeak erabiliko duen Txostenaren eredua EK-k balioetsi beharko du aldez aurretik.

  Erakunde esleipendunak jasoko du bileraren akta. Bilera mota bakoitzerako akta-eredua EK-k balioetsi beharko du aldez aurretik era berean.

Era berean, adjudikazioa eskuratzen duen erakundeak unean-unean premiazkoak suertatzen diren bileretan –kontratua gauzatzearekin lotutakoak– parte hartu beharko du.

6. ZERBITZUA EMATEKO BEHARREZKO GIZA BALIABIDEAK

6.1 Baldintza Orokorrak

Zerbitzua emateari atxikitako langileak Erakunde Esleipendunaren (kontratista) mende bakarrik egongo dira eta harenak bakarrik izango dira enplegu-emaileari dagozkion eskubideak eta betebeharrak.

Ondorio horietarako, enpresa kontratistak ondorengo betebeharrak hartuko ditu bere gain:

1. Adjudikazioa eskuratzen duen erakundeari (kontratista) soilik dagokio langileak aukeratzea; langile horiek plegu honetako hurrengo klausulan eskatutako titulazio- eta esperientzia-betekizunak izan beharko dituzte, eta kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldearen parte izango dira, eta horrek ez du eragotziko EK-k betekizun horiek betetzen direla egiaztatu ahal izatea.

2. Esleipendun erakundeak (kontratistak) lantaldea egonkorra izateko eta, aldaketarik gertatuz gero, haiek bakanak eta arrazoituak izateko ahalegina egingo du, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez eragozteko (eskaera hori justifikatzeko arrazoirik baldin badago), eta EKri aldaketa ororen berri emango dio.

3. Esleipendun erakundeak (kontratistak) kontratua gauzatuko duen lantaldearen gaineko zuzendaritza ahalmena, enpresa guztiek berezko dutena, modu erreal, eraginkor eta etengabean egikaritzeko betebeharra bere gain hartuko du.

   Bereziki, soldaten negoziazioa eta ordainketa, baimenak, lizentziak eta oporren onarpena, baja edo hutsune kasuetan langileen ordezkapena, Gizarte Segurantzaren arloko legezko betebeharrak –dagokionean, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne–, lan arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak,

diziplina-ahala erabiltzea, baita langilearen eta enplegu-emailearen arteko kontratuzko harremanetik eratortzen diren eskubide eta betebehar guztiak ere.

4. Esleipendun erakundeak (kontratistak) bere langile-taldeko kidea den koordinatzaile edo arduradun bat, gutxienez, izendatu beharko du, eta hark ondoko betebeharrak izango ditu:

   a. EKren aurrean adjudikazioa eskuratzen duen Erakunde Esleipendunaren (kontratista) mintzakide gisa jardutea; batetik enpresa kontratistaren eta kontratuari atxikitako lantaldeko kideen arteko komunikazioa bideratuz eta, bestetik, enpresa kontratistaren eta EKren arteko komunikazioa bideratuz, kontratua gauzatzetik eratorritako auzi guztietan.

   b. Lana kontratua gauzatzeaz arduratuko diren langileen artean banatzea eta langile horiei kontratatutako zerbitzua emateko beharrezkoak diren aginduak eta jarraibideak ematea.

   c. Lantaldeko langileek esleitu zaizkien funtzioak ondo betetzen dituztela gainbegiratzea, baita langile horiek lanera joaten direla kontrolatzea ere.

   d. Kontratua gauzatzeari atxikitako langileen oporraldia antolatzea, horretarako kontratista EKrekin ondo koordinatuz, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez eragozteko.

   e. EKri kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldearen osaeran sortzen diren aldaketak, noizbehinkakoak edo iraunkorrak, jakinaraztea.

   f. Kontratu honen xede den zerbitzuari atxikitako pertsonak EKren zentroetakoren batean daudenean, haiek EKren segurtasun-arauak betetzen dituztela bermatzea eta zerbitzuaren adjudikazioa eskuratzen duen erakundearen langile gisa identifikatuko dituzten bereizgarriak dituztela bermatzea.

Esleipendun erakundeak (kontratistak), klausula honetan bere gain hartutako betebeharrak urratzearen ondorioz, EKri kopuru batzuk ordaintzeko zigorra ezarriko baliote enpresa kontratistarekiko solidaritateagatik, erakunde kontratatzaileak kontratistari ordaindutako kopuruak ordainaraziko dizkio. Horretarako, EK-ak egoki eta komenigarria den edozein akzio, administratibo edo judizial, abiatu ahal izango dituzte, ordaindutako kopuru guztiak berreskuratu arte.

6.2 Baldintza partikularrak

Zehazki, kontratazio honen xede diren zerbitzuak zuzen emateko, adjudikazioa eskuratzen duen erakundeak honako langile hauek izan beharko ditu gutxienez:

i. Koordinatzaile BAT (1).

Kontratatutako zerbitzuak koordinatzeko eta gainbegiratzeko, adjudikazioa eskuratzen duen erakundeak, arestian aipatu den bezala, zerbitzuaren arduradun bat izendatu beharko du. Pertsona horrek bitartekari-lanak ez ezik, egin beharreko lanak zuzendu eta koordinatu beharko ditu.

Zerbitzuaren arduradunak **autonomia eta kudeatzeko eta erabakiak hartzeko gaitasun** nahikoa izan beharko du, kontratuari buruzko EKren edozein premiari, kontsultari edo beste edozein gertaerari azkar erantzun ahal izateko.

Aldizka bilduko da (EK-ak zehaztutako aldizkakotasunaren arabera), zerbitzuaren alderdi guztiak jorratzeko.

Funtzio horiek garatzeko proposatutako profesionalak 10 urteko esperientzia izan beharko du gutxienez; horrez gain, eskatuko da 10 urte horietatik 3 urtez euskararekin lotutako ekintza-planak egiteko, gauzatzeko eta segimendua egiteko laguntza teknikoa ematen duten taldeen koordinazioan jardun izana.

Posta elektronikoz edo telefonoz aurkitzeko moduan egon beharko du, zerbitzuaren edozein alderdi kudeatzeko. Pertsona horrek, halaber, honako bitarteko hauek izan beharko ditu:

- Telefono mugikorra
- Posta elektronikoko helbidea

ii. Talde operatiboa

Talde operatiboak, kontratazio honen xede diren lanak behar bezala egiteko beharrezko esperientzia eta prestakuntza izan beharko ditu. Eta zehazki, profesional hauek osatu beharko dute, gutxienez:

- BIKAIN ziurtagirian espezializatutako aholkulari Senior *BAT(1)*, ezaugarri hauek dituena:
  - BIKAIN ebaluatzailea
  - Azken HIRU (3) urteetan, gutxienez, entitate bat ebaluatu izana.
  - HIRU (3) urtetik gorako esperientzia BIKAIN sistemak ezartzen.

7. PENALIZAZIOAK

Klausula Administratibo Partikularren Pleguan aurreikusitakoez gain, EK-k badu eskumena penalizazioak ezartzeko, zerbitzuaren adjudikazioa eskuratzen duen enpresak **honelakoren bat** egingo balu:

- BIKAIN lortzeko ekintza plana entregatzeko data ez betetzea.

  Penalizazioa: **500 euro** atzeratzen den egun bakoitzeko

- Planaren aurrerapenari buruzko hiruhileko txostena entregatzeko data ez betetzea.

  Penalizazioa: **250 euro** atzeratzen den egun bakoitzeko

- Burututako bileren aktak ez entregatzea.

  Penalizazioa: **100 euro** atzeratzen den egun bakoitzeko

- BIKAIN ziurtagiria lortzeko aurkeztu beharreko txostenaren zirriborroa entregatzeko data ez betetzea.

  Penalizazioa: **3.500 euro** atzeratzen den egun bakoitzeko

- Plana gauzatzearen segimenduari buruzko azken txostena entregatzeko data ez betetzea.

  Penalizazioa: **500 euro** atzeratzen den egun bakoitzeko

- Penalizazioa ezartzen den beste kasu batzuk:

  - Zerbitzua ez eskaintzea Pleguan edo esleipendun-eskaintzan adostutako baldintzetan.
  - Zerbitzua prestasunez ez ematea, justifikaziorik gabe, behar baino denbora gehiago irauten.
  - EITB taldeko arduradunak kontratatutako zerbitzuari buruz eskatzen duen informazioa ez ematea erabakitzea edo hura ematen atzeratzea. Eskatutako dokumentazioa entregatzeko gehienezko epea 5 egun natural izango dira jakinarazpen formala egiten denetik zenbatzen hasita.
  - EITB taldeak esleipendun enpresari idatziz agintzea gabeziak konpontzeko –zuzenki eta arrazoiz adierazi ere–, eta enpresa adjudikaziodunak justifikatu ezin den moduan desobeditzea.
  - Zerbitzuan aldaketak arrazoi justifikaturik gabe eta aurrez jakinarazi gabe egitea.
  - Plegu honetan jasotako gainerako arau orokorrak eta espezifikoak ez betetzea.

  Penalizazioa: **2000 eurora** arteko penalizazioa ezbetetze bakoitzeko, haren larritasunaren arabera.

BI (2) ezbetetze eginez gero, EITB taldeak ahalmena izango du kontratua indargabetzeko. Penalizazioen guztizko zenbatekoak ezingo du ezein kasutan kontratuaren aurrekontuaren % 10 gainditu. Zenbateko hori gaindituz gero, EITB taldeak eskumena du kontratua indargabetu eta dagokion behin betiko bermea inkautatzeko.

8. ERAKUNDE LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Erakunde lizitatzaileek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute, Klausula Administratibo Partikularren Pleguaren klausula espezifikoen 24. klausulan xedatutakoarekin bat etorriz.

8.1 C GUTUN-AZALA.- Balio-judizio bidez balioetsitako adjudikazio-irizpideei buruzko DOKUMENTAZIOA

Klausula Administratibo Partikularren Pleguan zehaztutako balioespen-irizpideen arabera, hautagai diren erakundeek **C GUTUN-AZALEAN** sartu beharko dute proposamen bat, Klausula Administratibo Partikularren Pleguaren **IV.1 ERANSKINEAN** adierazitako dokumentazioa barne hartzen duena.

8.2 B GUTUN-AZALA.- DOKUMENTAZIOA, formulen bidez automatikoki ebaluatu daitekeen eskaintzari buruzkoa.

Erakundeek beren eskaintzak aurkezteko, Klausula Administratibo Partikularren Pleguaren **III.1 ERANSKINEAN** adierazten den taula-ereduari jarraituko diote: FORMULA MATEMATIKOAK.